

1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	13.977 biztanle
Zabalera:	0,96 km ²
Nafarroa2000ko zer eskualdetakoa:	Iruña (ikus mapa)
Udalerriak:	Iruña (barrutia-sekzioa: 04-001etik 04-003ra, 04-011, 04-015etik 04-017ra, 04-021 eta 04-025)

2. Komunitatea eta osasuna

Azpilagañako eskualde oinarrizkoa Iruñeko udalerrian dago kokatua, Arga ibaiaren ezker aldean, eta bertan nagusi dira 20tik 40 urte bitarteko eta 50etik 75 urte bitarteko adin taldeak; azken tarte hori bereziki feminizatua dago. Eskualde oinarrizko honek handienetakoak ditu zahartzaroko mendekotasun indizea (%49,8) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonezkoen etheen portzentajea (%14,1). Muturreko pobrezia arriskuaren tasak (%8,8) bat egiten du Nafarroako batez bestekoarekin.

Azpilagañakoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, diabetesa diagnostikatua duten pertsonen prebalentziari dagokionez (%5,3), urteko kontrol erregistratua duten diabetiko eta hipertentsiodunen portzentajeari dagokionez

(%77,5 eta %75,4, hurrenez hurren), emakumezkoen eta gizonezkoen antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%14,4 eta %8,2, hurrenez hurren) eta emakumezko nahiz gizonezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (86,8 eta 81,4 urte, hurrenez hurren).

Nafarroa2000 zonifikazioan Azpilagañako eskualde oinarrizkoa Iruñeko eskualdean dagoenez, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Iruñeari dagozkion adierazleak, bizimoduai, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik atereak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %39,1ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (*binge drinking*) eta %20,8k kontsumitzen dute tabakoa egunero.


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

→ [Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizit. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizit. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Iruñeko eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduen, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleerako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); 2. Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; 3. 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; 4. Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; 5. Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia arriskuaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia arriskuaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); 6. ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; 7 eta 8. Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; 9. 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; 10. Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduerara fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; 11. Azken 30 egunean kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); 12. Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; 13. Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; 14 y 15. Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 18,8 eta gizonezkoak 9,2); 16. Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score $\geq +2$); 17. 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 6,7); 18. 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua duten neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; 19. Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; 20 eta 21. Pertsona bat egungo heriotza-tasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.